Arlo Estrategikoaren Dinamizazio Taldea	LGEko gerentea (edo hark eskuordetutako teknikaria) edo Zuzendaritza Batzordeko kide bat edo arlo estrategiko horretan eskumena duen erakundeko ordezkari bat.	Arlo horretako KOORDINATZAILEA eta beste bi lagun. LGEko Zuzendaritza Batzordeko/Batzarreko kideak sartzea interesgarria da. Kide-kopurua sortzen diren proiektuen araberakoa izango da (prozesuak eta egikaritzeak irauten duen denboran aldatu egingo da).	<ul style="list-style-type: none"> - LGEk sustatutako ekimen/proiektu bakoitzerako lan-taldeak zehaztea eta eratzea erraztea. Baliabideak aurkitzea. - Arlo estrategikoarekin zerikusia duten gaietan, eskualdeko LGPren Koordinazio Taldearekin solaskide gisa jardutea. Informazio garrantzitsua ematea eta jasotzea. - Lurraldean arlo estrategikoarekin zerikusia duten eskari eta aukeren antena izatea eta eskualdean dauden proiektu eta ekimenen zorroa eguneratuta edukitzea. - Beste eskualde batzuekin batera lan egitea arlo estrategikoarekin zerikusia duten lankidetzeta-proiektuetan (edo zeregin hori eskuordetzea). - Dokumentazioa. <ul style="list-style-type: none"> • Funtzio horien garapenarekin zerikusia duten behar adina dokumentu egitea eta koordinatzea erraztea. • Arlo estrategikoarekin zerikusia duten plan eta programak eta agente-sarea eguneratzea. - Ardura zuzenean LGEko kideren bati ez dagokionean, arlo estrategiko horretan parte hartzea eta LGPn jasotako landa-garapenaren ikuspegiari eusten zaiola ziurtatzea. - Lan-ildo eta ekimenen lehenespena proposatzea. - Dagozkien ekimenetan parte hartzea. - Egin beharreko lanean zeharkako jarraibideak sartzea (berdintasuna, iraunkortasuna, koordinazioa...). - Lantzeko ekimen berriak proposatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Barne-bilerak, premien arabera eta proiektu-talde bakoitzaren informazioa oinarritzat hartuta. - Bilera edo ekitaldi bateratuak arlo estrategikoko proiektu-taldeekin. - Bilera edo ekitaldiak eskualdeko agenteekin, proiektuen ideiez eta proposamenez hitz egiteko, arlo estrategiko horretan eskualdeak dituen premien arabera. - Bilerak beste eskualde batzuetako antzeko arloetako Dinamizazio Taldeekin, premien arabera.
*Dinamizazio Talderik sortzen ez bada, Koordinazio Taldea arduratuko da funtzio horiez eta funtzionamendu-jarraibideak LGPren Koordinazio Taldearenetan integratuko dira.				

4. ABIAPUNTUKO DIAGNOSTIKOA

4.1. AMIA eguneratua

Eskualdeko landa-eremuen gaur egungo egoera aztertzeko prestatu da AMIA matrize. Bertan **garapen-prozesuan** eragin gai diren aldagarriak aurreikusi dira, zuzenekoak, **barne-faktoreak** (ahuleziak eta indarrak) nahiz zeharkakoak, **kanpo-faktoreak** (mehatxuak eta aukerak). Hauek arloka landu dira esparru soziala kultura eta kudeaketa politikaren ildotik, ekonomia, eta ingurumenarena. Guztietan garapenari begira arlo horietan adierazten diren **AHULEZIAK, MEHATXUAK, INDARRAK, AUKERAK** landu dira. Hauek arloaren arabera koloreztatu dira, horrela: gizarte arlokoa **laranjaz**, ekonomia **gorriz** eta ingurumen arloa **berdearekin**.

Honako hauek dira faktore horien definizioak:

AHULEZIAK: Eskualdearen garapen egokia oztopatzen duten berezko elementuak eta alderdiak dira.

MEHATXUAK: Eskualdetik kanpoko egoera negatiboak dira, eskualdean eragina izan dezaketenak. Horregatik, eragin negatiboa badute, beharrezkoa izan daiteke horiek saihesteko estrategia egokia diseinatzea.

INDARRAK: Eskualdea gainerako eskualdeetatik bereizten duten barneko elementu positiboak eta eskualdearen barne-ezaugarriak eta izaera positiboa nabarmentzen dute.

AUKERAK: Ingurunean sortutako faktore positiboak dira, identifikatu ondoren, aprobetxatzeko aukera ematen dutenak.

AHULEZIAK:

AH1- Baserritar eta kontsumitzaile arteko zubirik ez dago.

AH2- Nekazariak eta nekazal sektorea ikusezin bilakatu da herriarentzat, beren presentzia, administrazioetatik ere desagertua dago.

AH3- Baserriko produktuekiko eskaera ez dator bat beraiekiko egiten den balorazioarekin.

AH4- Emakumeek baserrian eta landa ingurunean aurkitzen dituzten zailtasunak; genero berdintasun politiketan bereziki.

AH5- Landa eremuko herri guneetan oinarritzko azpiegituren gabezi handiak aurkitzen dira: landa bideak, gasa, ur- eta saneamendu-sarea, etab. Gabezia hauek aldentutako zonalde eta baserrietan, baserri-multzo eta sakabanatutako landa herri gunetan larriak izatera irits daitezke.

AH6- Telekomunikazio azpiegitura hornikuntza gabezia: zuntz optikoa, telefono-sarearen puntu beltzak, banda zabala ...

AH7- Garraio publikoko zerbitzuaren ordutegi, maiztasun ... ezegokiak.

AH8- Ekipamendu eta azpiegiturretan gabezia (kirol, kultura, gizarte, hezkuntza, administrazio, funtzio anitzeko ... ekipoetan).

AH9- Eskoletako ikasleentzako zerbitzu gabezia, musika, arte, hizkuntza, teknologia, asoziazionismo ... bezalako ekipamenduetan, bai hezkuntza arautuan eta bai eskolaz kanpoko hezkuntza eskaintzan ere.

AH10- Mediku eta botika zerbitzuetan gabeziak.

AH11- Eskolaz kanpoko aisi- eta kirol-eskaintza ezarengatik haur eta gaztetxoek herri handietarako migrazioa

AH12- Herri-giroa dinamizatuko duen aktibo eta baliabide falta (umeentzako, emakumeentzako, gazteentzako, edadetuentzako ...).

AH13- Adindun eta gizonezkoen kopuruaren areagotzea, baina geroz eta gutxiago.

AH14- Biztanleria gutxiko zenbait herri (hauetako bederatzik 1.000 biztanle baino gutxiago dute).

AH15- Biztanleri kopuruaren jaitsiera enplegu arrazoiengatik sorturiko migrazio fluxuengatik.

AH16- Udalen oinarritzko zerbitzuak asetzeko eta beharrezko ekipamendu eta azpiegiturak hornitzeko zailtasun ekonomikoak.

AH17- Udal antolaketa osatzeko arazoak, herri oso txikietan bereziki.

AH18- Gazte eta emakumeen aldetik despopulazio prozesua, herri txikiek bizileku izateko erakartze indarra galtzearen ondorio.

AH19- Etxebizitzaren desokupazio maila altua.

AH20- Inguruko baserrien sakabanatze maila altua.

AH21- Tokiko administrazioek egungo etxebizitza tasatuen, babestuen ... beharra asetzeko eta kudeatzeko dituzten zailtasun handiak. Udaletxe txikiek ezin diete orubeen erosketei, proiektuen enkargatze, urbanizazio, oinarritzko azpiegituren lanei ... aurre egin.

AH22- Herri txikietako udal antolaketarako motibazio gutxi, eta herri nagusienetako landa auzoen garapenerako eskumen eskasa

AH23- Landa Garapeneraren eragile direnen konpetentzien murriztea, zenbait politika arlotan, ala ongizate, garraio, eta edo ingurumen naturalaren eragin eremuan

AH24- Hainbat proiektuen ongi joana jatorriarekin baldintzatua dator, siglen gaindiko politika komun baten kaltetan.

AH25- Eskualdeko kudeaketa desberdinen eragin eremua legegintzaldi politikoetara mugatzen da, horren baitan egokitzea behartzen delarik, gogoeta eta plangintza eremuekin bat ez datozelarik, ez eta hainbat proiektuen ziklo kontableekin

AH26- Bereziki nekazal sindikatuen orientazio falta krisi egoera baten barne, sektorearen etsipenez eraginda, elkarriketa politikoan ahultze bat eman da

AH27- Udal mailako nekazal antolaketa eta ordezkartza gutxi garatua, eskualdeko baliabide eta erakundeekin elkarlan gutxi

AH28- Zenbaitetan, nekazal jarduera errentagarri bihurtzeko zailtasunak

- AH29- Eraldaketa gune eta hauek osasun baldintzekiko inbertsio altuen erantzun ezina
- AH30- Nekazal lur falta, egungo jabeen zahartzearekin, eta diru beharrik ez izanarekin, hipotekatuak geratzen dira datozen belaunaldientzako
- AH31- Nekazaritzan hasi nahi dutenek aurkituko dituzten zailtasunak (lursail gabezia, inbertsio garestiak, errendimendu baxuak ...)
- AH32- 65 urtetik gorakoen biztanle kopuru handiak nekazal jardueran belaunaldi aldaketa eman dadila oztopatzen du
- AH33- Produkzio gune berriak sortzeko eta inbertsio eta jarduera ekonomiko berriak herrietara erakartzeko zailtasunak
- AH34- Kopuruz nahikoak eta modu eraginkorrean zerbitzu komertzialak ezartzeko zailtasunak
- AH35- Eskualdeko ohiko produktuak saltzen diren salmenta puntu finko gutxi.
- AH36- Natura 2000 sareak kasu askoetan nekazal ustialeku askoren produktibitatea baldintzatzen du, sarri zonalde gaitzetsien eta mendiko zonaldeetan aurkitzen diren ustialekuen izaera estentsiboa baldintzatzen dituelarik.
- AH37- Zerbitzu sektorea eta turismo azpisektoreen garapen urria.
- AH38- BGL (LIC) zonaldeetan zein jarduerak diren bateragarriak eta zeintzuk ez azaltzen duten kudeaketa planen gabeziak, ekimen produktibo berri askok banan-banan baimena jaso behar izatea dakar, betiere ingurumen ebaluazioaren tramitea pasa ondoren, horrek dakarren burokratizazio, zalantza eta praktikan jartzeko atzerapenarekin.
- AH39- Ostatu zerbitzuen garapen urria (aldakortasuna, prezioak, egonaldien balorazioa ...)
- AH40- Natur inguruetan bisita eskaintza murrizta.
- AH41- Gure paisaietako elementu kulturalen etengabeko galera (borda, pagadi, karobi ...).
- AH42- Natura 2000 saretik kanpo, udalerrri gehienetan inbentario falta eta biodibertsitate eta baliabide propioei begirune gabezia
- AH43- PN kudeaketa antolaketa falta eta ondoriozko sinesgarritasun eskasa, administrazio desberdinen arteko elkarlan hutsalarekin
- AH44- Udalen derrigorrezko ingurumen zerbitzuen gaitasun mugatua (ur zikinen arazketa, hondakinen kudeaketa), hala nola bere inguruko natur baliabideak kontserbazio eta kudeaketa gauzatzeko, egitura komun eta udalen gaindiko erakundeen menpe egotearen ondorio.
- AH45- Eskualdeko herri txikien eta sakabanatuenetan dagoen kotxe kopuru handiegia.
- AH46- Epe motzerako politika urbanistikoak dituzten Agenda 21ean gutxi inplikaturako Udalak.
- AH47- Mantentzeko garestiak diren herri bideen sare katramilatsua.
- AH48- Natura Sarearen barruan zeharkako Gestio Planen gabeziak, bere kontserbazio helburuak betetzea oztopatu eta atzeratzen dute.
- AH49- Errentagarritasun faltaren eta belaunaldi aldaketa gabeziaren ondorioz gertatzen den nekazal jarduera uzteak, nekazal sistema eta ondare natural hauetako espezieen eta habitaten kontserbazio egoera okerrera egitea ekartzen du.
- AH50- Haranetako sakonuneak erabat eraldatuta daude eta horrek bereziki ibaiengan eragina izan du, korridore ekologiko bezala funtzionatzea zaila egiten zaielarik.
- AH51- Azpiegitura handiak egiteko lanek lur-azpia eta lurpeko urak eraldatzen dituzte, lur-mugimenduak sortuz, eta lan hauen ondorioz gertatzen diren habitat ezberdinen zatiketak biodibertsitatean kalte handiak ere sortzen dituzte.

MEHATXUAK:

- ME1- Nekazal kulturaren galera, dituen balioen higadura prozesu gera ezina
- ME2- Herri txikietako ahalmen ekonomiko murrizta
- ME3- Baserriek duten balio anitzaren eta herri txikiek kulturari eta nortasunari egiten dieten ekarpenaren aitoren falta
- ME4- Bizimodu eta ohituren aldaketa eta kultura globalizatuago batera gerturatzea.
- ME5- Zerbitzu minimoen eta gizarte kohesio txikiaren ondorioz biztanleria galtzea
- ME6- Herri guneeak eta herri handiagoak jendea erakartzeko ahalmen handiagoa.
- ME7- Kapital galera eta honek ekonomiaren garapenean duen eragina
- ME8- Espekulazio ariketak eta presio urbanistikoa landa lurretan.
- ME9- Biztanleriaren zahartzeak herriaren kudeaketa ahalmena gutxitzen du, gehienbat giza baliabide gaietan.
- ME10- Gizarte eredu eta irizpide berriek jendearen deserrotzea eragin dute
- ME11- Ehiztarien eta arrantzaleen kolektiboko kideen kopurua gora, beraz, kontzientziazio behar handiagoa.
- ME12- Herri txikiekiko udalen arteko solidaritate falta
- ME13- Udalez gaindiko zonako hamaika proiekturen garapen aukeren porrota
- ME14- Blokeaturiko ekimen eta edo legegintzaldien baitan eman ohi diren mugimenduak energia galarazten dute, inbertsioak zentzugabe erabiltzea eta tarteko enpresa kontratatuen aberastea
- ME15- Administrazio desberdinen arteko konpetentzien solapatzea, elkar uztartze "borondate" - lan falta
- ME16- Nekazaritzarekiko politika geroz eta interbenituagoak ematea
- ME17- Belaunaldi berriek, udal mailan eskualdeko politika eta orain arteko irakurketa historikoren ez ezagutza, baliogabetze egoerara eman dezake orain arteko lorpen eta egitura anitz
- ME18- Herri txikietako oinarritzko beharretarako ahalmen ekonomiko falta
- ME19- Lehen sektorearen aldeko politiken indargabetzea, antzeko edo osagarri diren eragin esparruen alde, ala turismo jardun, zerbitzu sektoretako asko, edo kultur arlokoak landa garapenean barne
- ME20- Baserrien balio anitza, kultur eta gizarte mailakoa galtzea, herri nekazaritzaren galtzea
- ME21- Lehen sektorearen inguruan I+G inbertsio gabezia.
- ME22- Politika gain-babesleek eragindako burujabetasun gabezia, diru-laguntzen menpe egoteko arriskuarekin
- ME23- Biztanleriaren gutxiengo bati bizi-kalitatea bermatuko lizkioken zerbitzu minimoak eta inbertsioak ez egitea politika orokortzaileen begitara nahikoa justifikaziorik ez dutelako.
- ME24- Udalen gaindiko politika orokorrak, tokiko garapen beharrak garatu beharrean
- ME25- Herri handiago eta enpresentzat erakargarritasun handiagoa dutenen aurrean lehiatzerakoan desabantaila
- ME26- Gizartearen eta ekonomiaren garapena suspertzen ez duten eta "logela-hiri" izatera bideratzen duten etxebizitza politikak.
- ME27- Nekazal jarduera tradizional askoren lehiakortasun galera, ekonomia globalizatu eta produkziarako laguntzen murrizketa jarraituaren testuinguruan.
- ME28- Natura 2000 sarearekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoen sustapenerako bideratzen diren aurrekontu urriak.
- ME29- Etxebizitza hutsen kopuru handia

- ME30- Nekazal jardueretan atzerakada.
- ME31- Lanbide eta zerbitzu aukera oparoa landa gunetik gertu.
- ME32- Herritarren zahartze tasak aberastasuna ekartzen ez duen "okupazioa" familia zaintza dakarkio biztanle aktiboko esparru bati
- ME33- Balizko eragileen edo biztanleen artean turismo sektoreak dituen aukeren inguruko mesfidantza eta ezjakintasuna.
- ME34- Egungo egoera ekonomikoak eragile pribatuen inbertsioak eragozten ditu.
- ME35- Inguruko lurralde mugakideek aurreratzen ari dira eta gure parke naturalen merkatu turistikoa bereganatzen ari dira.
- ME36- Natura 2000 sarearen eskumen partaidetza eskasa, bertako babes figuren ez ezagutza eta mesfidantza
- ME37- Lehen sektorearekin zerikusirik ez duten jarduerentzako lur eskaera eta landa lurren galera beste jardura batzuen mesederako.
- ME38- Herri eta hiri handiagoen urbanizazioa; herri mugakide handien hazkundeak sortutako landa guneen galera.
- ME39- Nekazaritza jardura areagotzearen ondorioz sortutako ingurumen arazoak eta bizilagunen arteko liskarrak.
- ME40- Leku bakoitzeko kontserbazio helburuekin bat egiten ez duten zenbait industria eta turismo jardueren ondorioz sortutako balizko ingurumen kalteak.
- ME41- Hondakinen kudeaketa beti landa eremuan kokatzen dituzten lurralde antolaketa politikak.
- ME42- Herrietara eta auzoetara iritsi eta euren arteko lotura ahalbidetuko duten motorrik gabeko ibilgailuentzako herri bideen edo bidegorrien eta bide berdeen gabezia.
- ME43- Klima-aldaketak larre eta baso sistemetan oinarritzen den lehen sektorearen emankortasuna alda dezake.
- ME44- Azpiegitura handiak egiteko lanek ingurumen inpaktu handia eta exekuzio-denbora luzea suposatzen dute.

INDARGUNEAK:

- IN1- Hezkuntza eta kontsumo taldeen antolaketa, Ag21 eta jasangarritasun lanketa
- IN2- Nekazarien ahalmentze aldeko mugimendu berrien sorrera eta saiakera serioak bideratzen saiatzera begira
- IN3- Ondare arkitektoniko eta natural aberatsa
- IN4- Landa munduarekin erlazioa duten zenbait ohitura, jai eta ospakizun kulturei eustea.
- IN5- Nortasun lurraldea, sinu identifikatu nabarmenak, historia duna, ezaguna, onartua.
- IN6- Oinarrizko zerbitzu minimoak beteak.
- IN7- Landa-herrietako gehienetan sektorearekin zerikusia duten elkarte eta anaidiak daude.
- IN8- Kalitate goreneko natur turismo jomuga erakargarria.
- IN9- Aparteko elementu kultural eta etnografikoen kontserbazioa.
- IN10- Lan eskerga handia egindako mankomunitate bidezko zerbitzu eta sistemen funtzionamendua.
- IN11- Bere kultura, jaioleku eta aziendara estu lotutako biztanleria
- IN12- Gizarte partaidetza geroz eta altuagoa bertako erabaki eta antolaketan
- IN13- Sektore ekonomiko pribatuen geroz eta parte hartze aktiboagoa herri eta eskualde dinamikan, ongizate komuna lortzera bidean
- IN14- Gizatalde motibatua, geroz eta informatuagoa eta aukeren egarritz, aldaketetarako gogatsu, elkarlanerako kultura geroz eta barneratuagoarekin
- IN15- Lehen sektorearen aldeko posizionamendu, premi eta lehentasuna eskaintzeko nahi eta ikuspegi garbia, udal mailan

- IN16- Herri mailan, nekazaritzarekiko eta azoka zein denda txikien garapenerako interbentzioen alde, apustu garbia
- IN17- LGE egitura autonomiaduna, eskualdetasuna babesten, eta lurralde mailan elkar lanerako antolatua
- IN18- Erreferentziazko merkatuekiko gertutasun geografikoa
- IN19- Eskualdeko industri sektore osatua, egoera onean, sentikortze prozesuan, irekia eta kolaboraziorako gertu, beste zerbitzu sektoreen elkar lanerako sinergiak elkar banatuz
- IN20- Udalen partaidetza areagotzea nekazal gaiekiko, ala azoka edo makinari elkarte zein bestelako zerbitzuen berritzean
- IN21- Artzaintzaren, nekazaritza ekologikoaren, abeltzaintza estentsiboaren ereduen ... aurrean aldeko jarrera.
- IN22- Nekazariantzako ordezkapen zerbitzua indarrean egotea
- IN23- Transformatze prozesuen garapenaren inguruko gorakada nabarmena
- IN24- Beren jardueren aniztasunaren alde egiten duten baserriarren presentzia
- IN25- Bokaziozko errotze handia duen jarduera ekonomikoa
- IN26- Herritarrengan oso errotutako nekazal kultura
- IN27- Hirugarren sektorearekin erlacionatutako ekonomien garapenerako ingurune egokia.
- IN28- Ustiapen estentsibo, jasangarri eta anitza izan ditzaketen baliabide naturalak.
- IN29- Inguruko landa- edo herri-eremuen garapenerako lehengai eta oinarrizko baliabide iturri garrantzitsua (ura, egurra, nekazal produktuak ...).
- IN30- Lurraldearen naturaltasun, ingurumen eta paisai kalitate gorenak landa turismoaren garapenerako giltzarri dira.
- IN31- Museo, ibilbide, eta abarren turismo eskaintza anitza.
- IN32- Bertako biztanleen natur inguruaren ezagutza zabala.
- IN33- Natur ondare paregabea, bertakoek maitatua, nahikoa ezaguna eta gizarte osoaren onarpenarekin kontaktzen duena
- IN34- Sareko espazioek ondare natural eta aniztasun biologiko eta geologiko gehiena hartzen dute, eta beren kontserbazio eta berreskuratzeraz lagun dezakete politika sektorialek eta kontserbazio ekintzak batu, arautu eta koordinatzen badira Gestio Plan egokien bitartez.
- IN35- Natura 2000 Sarea eta natur gune nagusiek gizartearen begiruneaz gozatzen dute.
- IN36- Aniztasun biologiko eta geologiko aberatseko ondare natural garrantzitsua.
- IN37- Udal guztiak Agenda 21 programen barruan daude.
- IN38- Sendoki egituratutako hondakin bilketa politika.
- IN39- Balio natural handiko eremuek babes espezifikoko araudia dute; baliabide ekonomiko eta giza baliabide jakinez gain.
- IN40- Natur- eta mendi-zaletasuna eta jarrera boluntarioa duen biztanleriaren zati handi bat.

AUKERAK:

- AU1- Baserriko produktuen balorazio handia, kalitatea onartuz
- AU2- Kontsumitzaile eta bertakoa, garaian garaikoaren aldeko talde sentikortuen antolaketa, motibazio propioduna
- AU3- Gizarteak kalitatezko produktuei dien estimu handia, bereziki baserriko produktuei.
- AU4- Gizarteak aisiari ematen ari dion garrantzia geroz eta handiagoa, eta horrekin batera landa eremuak hartzen ari den garrantzia handiagoa.
- AU5- Geroz eta gizarte garapen jasangarriaren aldeko urrats gehiago, ekologikoan eta elikadura jasangarriaren barne bereziki, barne garapena

suspertze aldera ...

AU6- Baserriei eta bertako ohiturei eutsi beharraren ideia, sektorean geroz eta hedatuagoa

AU7- Zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren ekipamendu eta azpiegiturak hobetzen laguntzen duten landa garapen programak

AU8- Immigrazioa ondo integratuz gero, demografiaren elementu dinamizatzailea izan daiteke

AU9- Beste herri txikietako ekintzekin koordinatzeko eta osatzeko aukera, Landa Eremutako Planen programazio burutsu bat eginez eta zerbitzu mankomunatuaren eskaintza bultzatuz

AU10- Landa garapen jasangarrian oinarritutako politika jakin eta bereiztuak aplikatzeko aukerak

AU11- Auzolandegian, herri mailan ematen diren taldeen kudeaketa eta sustapena

AU12- Arlo ekonomiko sozialen arteko lan uztarketa: Ag21, soilik ideologiaren gaindiko gestioak egonkortzerako ildoaren garapena

AU13- Elkarte eta gizarte mugimenduen eskaintza, debatea, foroak, partaidetza sustatzen, erreferentziazko bilaka daitezke erabakiguneetan etorkizuneko ereduaren eraketan

AU14- Eskualdeko eragile desberdinen arteko sinergiak eta antolaketa aukera, gizarte onurei begira, garapen endogenoan, nekazaritza politika barneratzeaz jabetuta.

AU15- Mugaz bestaldeko ereduaren ekartzea, bilatzea, bertarakora egokitzearen saiaketa

AU16- Komuneko eta udalez gaindiko proiektuen lanketa, MN hitzarmenen altzoan

AU17- Teknologia berrien inplantazioa sektorean: Formazioan eta bere lehiakortasunean eragina izan dezakete

AU18- Kontsumitzaile kopurua (69.000 biztanle), jangela kolektibo antolatuak eguneroko bazkariarekin, industria, lokal sozial eta egoitza publikoetan, ezagunak eta irekiak

AU19- Europar diru laguntzak eta bestelako finantzabideak, herri garapenerako bideratuak hartzen duten lehentasuneko papera, herrien aurrerako dinamikan

AU20- Landa Zonaldeko Planen programaketak sektore ekonomiko garrantzitsuenak indartzea lagundu dezake

AU21- Azkenaldian nabarmentzen ari den energia berriztagarrien sektoreak landa eremuarentzat diru-iturria izan daiteke

AU22- Lurralde Zaintzaren inguruko tokiko administrazioen kontzientziazio handiagoa

AU23- Gizartean Landa eremuko turismoarenganako eskaera handia.

AU24- Ingurumen eta nekazaritzako elikagaien kalitatearekin loturik nekazaritza eta abeltzaintza estentsiboa garatzeko ahalmen handia.

AU25- Natura 2000 sarearen helburuekin bateragarriak diren garapen sozioekonomikorako laguntza konpentsatzaileak aplikatzeko aukera.

AU26- Naturan eta esperientzietan oinarritutako turismoarenganako interes geroz eta handiagoa.

AU27- Natur ingurunearen mantenu, birgaitze eta kudeaketa ekintzen ondorioz lanpostu eta enpresen jarduera ekonomikoen sorrera.

AU28- Ingurumen zerbitzuen truke diru-sarrerak lortzeko aukera.

AU29- Garraio azpiegiturretan egindako betelaren ondorioz lursail mekanizagarrien hazkundea.

AU30- Nekazaritza lurren balioa berreskuratzea nekazaritza eredu berriak sustatuz.

AU31- Turismo naturalaren (sedentarioa eta aktiboa) eta esperientzi berrien bilaketaren gorakada.

AU32- Ingurumenari geroz eta begirune handiagoa zaio eta baserriak honen sustapenean lagundu dezake.

AU33- Sektore desberdinen uztarketa lan jatorria, gizarte erakunde desberdinen partaidetzarekin, saretze lan batera begira, ekonomikoki balioak indarrean jartzera, eta eredu garri diren dinamika gizarteratzeko bide.

AU34- Sarearen helburuak egoki lortzea laguntzen duten neurri eta inbertsioak.

AU35- Nekazaritza-praktika estentsibo eta tradizionalak gauzatzen diren lurren mantenuaren menpe dauden lurraldeen kontserbazio egoera hobetzeko aukera.

AU36- Aire kalitate txarra eta industria kutsagarri eta astunaren presentzia handia.

AU37- Eskualdetik harago zabaltzen den Aizkorri-Aratz eta Aralar Parke Naturalen sona.

AU38- Murumendi, Lasarte erreka, Arantzamendi ... guneek Natura 2000 Sarera batzeko aukera.

AU39- Klima-aldaketak sortutako egoera berriari aurre egiteko planteatutako nekazaritza-politikek baliabideen hobekuntza eta errentagarritasunaren gorakada ekarri du.

AU40- Geroz eta parte-hartze handiagoa Agenda 21etako foroetan.

4.2. Balio diferentziala

Eskualdeko landa-eremuan azpimarragarri diren funtsezko faktore positiboak dira.

Goierrin bertakoak, autoktonoa denak hartzen du indarra, nortasun propioa nabarmentzen zaizkion, paisaiak, abeltzaintza modelo definitua, paisaiari eta herri edo landako idiosinkrasiari atxikia, etnografia eta kulturarekin bat uztartuz. Landako euskal kulturaren sinu, identitate handiko eremua da:

- Lehen sektoretik eratortzen diren produktuak lurraldez gaindi gorai patzen dira. Izan Idiazabal J.I. gazta, izan Tolosako babarruna, sagardoa, odolki, buzkantza, mondejua, eta abar. Beren kofradiak ere bertan dira, gazta, odolkia, mondejua ... nekazaritzaren isla handia ematen da eskualdean, baserriar elkarte erakundeen presentzia adierazgarria da: Euskaber, Lumagorri, Artzai Gazta, Gee, adibidez. Ekologikoan ere azpiegitura eta eskaintzan, gero eta baserri modelo gehiagorekin hazkuntza nabarmentzen da.
- Herri txiki eder, paregabeak.
- Natur eremu zabala, natura 2.000 sarea babes figura ugari duena, bioaniztasuna eta kontserbazio kalitateagatik oso ezagunak.
- Eskualdean museo eta erakargarri turistikoak ere baserria, eta bertako produktuekin lotutakoa da, izan Lenbur, Igartubeiti, Ardixarra, Gazta eta sagardoaren mendia, Idiazabal gazta museoa, D'elikatuz, Igartza Tolarea, Ordiziako azoka, e.a.

4.3. Garapenerako bideak

Eskualdeko landa-eremuaren garapenean, gaitzera, zailtasun edo aparteko ahalegina nondik bideratu behar diren erronkak dira, hauen lorpen eza, aurrerako garapena baldintzatu dezaketenak.

- Nekazaritza sektore estrategiko eta gizarteko lanbide normalizatu bihurtzea, gutxieneko errentagarritasun bermatzea.
- Lehen sektorea ardatz duten lurralde antolamendu eta ingurumen-politika.
- Tokiko produktuen eskaintza eskaera eraketa.
- Landa-eremuan bizi diren herritarren inplikazioa.
- Energia-subiranotasunaren alde landa-eremuan urratsak.
- Landa-eremuan bizi diren herritarren inplikazioa areagotzea.
- Lurraldearen eta gizartearen behar eta eskaera berriak.
- Informazio, sentsibilizazio eta kontzientziazio esfortzua.

5. ESPARRU ESTRATEGIKOA

5.1. Mapa estrategikoa

2020rako ikuspegia: etorkizunean eskualdeko landa-eremua zer izatea nahi dugun islatzen duen agertokia da. Eskualdeko argazkian ahalik eta elementu gehien aurreikusi bada ere, garrantzia argazki hori lortzera **egin beharreko bideari** eman zaio eta ez horrenbeste helburuen lorpenei. Horrela, marko hori definitzen duten **jarrerak** landu dira:

*Baserri eredu desberdinek **elkarlanean, modu antolatuan** dihardute. Ekonomia jarduera anitza da landa eremuan. Elikagai eta energia arloan geroz eta **autonomia handiagoan**.*

*Baserriaren agertze eta **onarpena**. Nekazaritza eskaintza normaltasunez barneratua da **hezkuntzan**, ikas guneetan. Herri dinamiketan ere, **kirol eta kultur jardunetan** bizirik ikuskatzen da. Herri identitatean oinarri, aldeko gizataldeen babesa dauka. Garaietara egokitutako nekazal jarduerak **bizitza duina ahalbidetzen** du: kalitatezkoa, laguntzen menpetasunik gabe, malgua, aldaketei aurre egiteko gai ... eta eskualdean ematen diren **beste ekonomiekin uztartzen** da, ahalmen handiagoz, toki politikan presentzia nabarmenarekin.*

*Natur baliabideak giltzarri dira. Ingurumenaren **zaintza arretaz eta kontzienteki lantzen** da. **Ekonomi eta gizarte interesekin harmonikoki** uztartzen da.*

*Udal eta udalez gaindiko hainbat azpiegitura, zerbitzu eta proiektu **komunean** garatzen dira, lanpostu sorrera ezaugarritzen dutenak, arlo **publiko eta pribatuek bat**, ikuspegi **soziala lehenetsiz**. Nekazaritza tarteko.*

Ikuspegiari lotutako helburu orokorrak: ikuspegiaren elementu nagusiei lotutako helburu handiak dira. Landa eremuetako bizitza indartzea, nekazaritzak gizartean eragin ekonomiko eta soziala areagotzea bilatuz, kaletar zein baserritarren mundu biak herri bakar baten kudeaketan uztartuz. Azken finean herrixkak, auzoak, eta bereziki baserriak, hustu ez daitezzen, bertako bizi kalitate eta lan baldintzen alde egitea, herritar guztion inplikazioarekin, autonomiaren bidean.

Helburuak neurtzeko, gaur egungo egoera eta berauen lorpen maila ulertzen lagunduko diguten hainbat adierazle identifikatu dira. Adierazle gehien datuak, herrialdea bere osotasunean kontuan izanda jaso dira, hau dela eta, hiritartasun maila altua duten herrialdeetan, baina aldi berean landa eremuko guneak dituztenean, adierazle hauen balioek ez dute landa eremuko egoera ongi islatzen.

Helburuak neurtzeko eta berauen lorpen maila modu objektibo batean aztertzeko, bi adierazle mota ditugu:

- **Emaitzen adierazleak**: lortu diren berehalako eta zuzeneko ondorioak neurtzen ditu.
- **Eraginen adierazleak**: Ez dute soilik zuzeneko onuradunen gaineko ondorioak neurtzen, haratago doaz eta gizartea bere osotasunean kontuan hartzen dute. Bere lorpen maila ez dago emandako ekintzaren eraginkortasunaren baitan soilik, kanpoko beste eragile batzuen eragina jasan baitezakete eta ondorioz, ekintzen eraginkortasuna ezin da bere osotasunean programaren arduradunei gain egotzi.

Ondorengo taulan; helburu, adierazle eta gaur egungo egoeraren arteko erlazioa islatzen da eta lan aldi honetarako espero diren balioen definizioa, garatzeko metodologian aipatzen den lan taldeari dagokio

HELBURU OROKORRAK	ADIERAZLEAK	GAUR EGUNGO BALIOA
• Nekazaritza berpiztu	<ul style="list-style-type: none"> - Nekazal Azalera Erabilgarria (Ha) - Nekazal ustiategi kopurua - Nekazal Balio Erantsi Gordina (mila €) - Nekazaritzako enplegua - ICM onuradun kopurua - Nekazaritza lurak daukan pisua (%) 	<ul style="list-style-type: none"> 7.554,12 1.524 13.117 664 296 22
• Herritartasun grina elikatu	<ul style="list-style-type: none"> - Herri mailan antolatzen diren azoka berezi eta landa ekimenak - Eskola baratza kopurua - Bertako produktuekin jangelak - Landarekin lotutako komunikazio egiturak - Salmenta marketinean izaera digitala duten ekoizle kopurua 	<ul style="list-style-type: none"> 27 4 1 1 71
• Landa eremuaren autonomia sustatu	<ul style="list-style-type: none"> - Biztanleria <ul style="list-style-type: none"> o Emakumeak o Gizonezkoak - Heziketa zentro kopurua - Osasun-zerbitzu kopurua - Farmazi eta botikin kopurua - Egoitza eta eguneko zentro kopurua - Barne-Produktu Gordina (€) - Bataz besteko errenta pertsonala (€) <ul style="list-style-type: none"> o Emakumeak o Gizonezkoak - Langabezia-tasa (%) 	<ul style="list-style-type: none"> 16.025 7.661 8.364 87 22 22 50 37.389 20.414 13.611 27.003 11,07
• Ekonomia eredugarria, anitza eta soziala sustatu	<ul style="list-style-type: none"> - Ekintzaitzatik sortutako enpresa berriak - Eskualdeko eragileen arteko proiektu kopurua - Ikuspegi sozialeko proiektu kopurua 	<ul style="list-style-type: none"> 0 0 0

Zeharkako ardatzak: ardatz hauek, euren izaeragatik arlo estrategiko zehatz batetik hedatu eta modu horizontal batean, eskualdeko landa garapen programetan landuko dira.

1. **Berdintasuna**, eta honen barne, bereziki genero-ikuspegia.

Sexuaren arabera banaka daitezkeen adierazle guztietan emakume-kopurua eta gizon-kopurua bereiz adierazi behar dira.

Gainera, emakumeen ordezkarritasunaren bilakaera eta tokiko erakundeen konpromisoa neurtuko dira, adierazle hauen bidez:

ADIERAZLEAK	GAUR EGUNGO BALIOA					
	KONTZENTRAZIO-INDIZEA		FEMINIZAZIO-INDIZEA	TASA		GENERO-ARRAILA
	EMAKUMEAK	GIZONAK		EMAKUMEAK	GIZONAK	
• Udalbatzen antolamendua sexuaren arabera	0,08	0,08	0,69	%41	%59	%-18
• LGEko Zuzendaritza Batzordearen antolamendua sexuaren arabera	0,08	0,05	0,63	%38	%62	%-23

ADIERAZLEA	GAUR EGUNGO BALIOA	OHARRAK
• Eskualdean berdintasun-planak dituzten udalerrien portzentajea.	%45	○ 10 udalek daukate Berdintasun plana eginda

2. **Iraunkortasuna**, eta honen barne, bereziki justuko merkatua eta ekonomia biomimetikoaren printzipioak

Tokiko erakundeen konpromisoa neurtuko da, adierazle hauen bitartez:

HELBURUAK	ADIERAZLEAK	GAUR EGUNGO BALIOA ²
• Energia aldetik iraunkorrek diren ekimenak sustatzea.	○ Energia aurrezteko helburu duten ekimen publikoen kopurua.	0
	○ Energia berriztagarriak erabiltzea helburu duten ekimen publikoen kopurua.	0
• Erakundeen konpromisoa iraunkortasunarekin.	○ Tokiko Agenda 21 martxan duten udalen %.	%68
	○ Kontratazio-agirietan “erosketa berdeko” irizpideak aplikatzen dituzten erakunde instituzionalen %.	%43 ³
• Gizartearen partaidetza eskualdeko LGPn.	○ Eskualdeko LGP gizarteratzeko ekintza-kopurua (informazioa edo partaidetza). ⁴	0
	○ Sentsibilizazio-ekintza horietako bertaratu/partaide kopurua. Emakumeak/Gizonak.	0

3. Lankidetzak

Ondorioz, elkar eraketara bideratua dago ... Pertsonak eta bizi-kalitatea: Baserritarra hiritarra beste da.

² Hasierako balioa 0 bada, ekintzak LGP aplikatzen den momentutik aurrera kontatzen direlako da.

³ Eskualdeak dituen 22 udalerritik 7k erantzuna eman dute eta horien arabera kalkulatu da ehunekoa (Beasain, Idiazabal, Legazpi, Ormaiztegi, Urretxu, Zegama eta Zumarraga).

⁴ LGP martxan jartzen denetik egiten diren ekintza eta topaketak kontatuko dira, lan-foro hauei dagozkienak aparte utzita: LGEko Zuzendaritza Batzordea, LGPko Koordinazio Taldea eta Lurralde Mahaiak. Ikusi 3.2 kapitulua, egikaritzeko metodologiari buruzkoa.

- Berdintasuna lanbide eta gizarte mailan. Emakumea.
- Auzolana, elkarlana gisa.
- Kolaborazioa, solidaritate gisa.

Eskualdez gaindiko elkarlanaren sustapena neurtuko da adierazle hauen bidez:

HELBURUA	ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> • Landa-eremuen eta landa-garapeneko eragileen arteko sinergiak eta aliantzak gehitzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ LGEk parte hartzen duen eskualdez gaindiko lankidetzaproiektuen kopurua. ○ LGE Landa Garapeneko Euskal Sarearen deialdietara bertaratzea.

Arlo estrategikoak: 2015-2020 aldian zehar garatu beharreko lan-ildoak biltzen dituzten arlo berezi handiak dira.

1. Nekazaritza, landa ekonomiaren trakzioan barneratu.
2. Hiria «elikatzen», baserriak erreferentziazko hornitzaile bilakatu.
3. Herri izaera bizi kalitatearekin bat egin.
4. Jarduera ekonomiko eredugarrien lanketa.



5.2. Arlokako fitxak

NEKAZARITZA, LANDA EKONOMIAREN TRAKZIOAN BARNERATU

HELBURU ZEHATZAK	ADIERAZLEAK	GAUR EGUNGO BALIOA
○ Baserrietarako oinarritzko azpiegiturak bermatu	○ Lagundutako azpiegitura kopurua: - Baserri bideak - Ur eskaerak - Eliktrifikazio eskaerak	0 ⁵ 0 ⁵ 0 ⁵
○ Eskualdean dauden baserriar proiektu eta komuneko egituren kudeaketa zaindu	○ Nekazal elkarteen eskaerak ○ Nekazal elkarte kopurua	0 ⁵ 25
○ Baserrietara zuzendutako errentagarritasuna ahalbidetu	○ Baserri produktuen balio erantsiko gogoetak	0 ⁵

HELBURU OROKORREKIKO HARREMANA

- Nekazaritza berpiztu
- Landa eremuaren autonomia sustatu
- Ekonomia eredugarria, anitza, soziala, sustatu

LAN-ILDOAK

- Baserri bide, ur hornidura, elektrifikazio azpiegiturak lagundu
- Nekazaritza zerbitzuen eragingarritasuna eta berrien sustapena
- Nekazarien arteko harreman, formazio, informazio, eta elkarganatzea sustatu
- Nekazaritza jarduera berriei jarraipena eman
- Abeltzaintza indartu, basogintza ereduekin barneratua, paisai mantenuan dagokion onura onartuz
- Nekazaritzaren I+G-a, inkubategi eta ekimen pilotuak antolatu
- Lur funtsa areagotu, nekazari belaunaldi berrieekin sinkronizatu, gertuko jarraipena eskainiaz

⁵ Ekimen berriak izango direnez, hasierako datua 0 da.

HIRIA "ELIKATZEN", BASERRIAK ERREFERENTZIZKO HORNITZAILE BILAKATU

HELBURU ESPEZIFIKOAK	ADIERAZLEAK	GAUR EGUNGO BALIOA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Tokiko, J.I. elikagaien kontsumoa indartzea, areagotzea, aniztea 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Merkaturatze gogoetak ○ Bertako elikagaien ekoizleak antolatutako guneetan 	<p>0⁶ 107</p>
<ul style="list-style-type: none"> ○ Hezkuntza arloan Landa eta Baserri mundua barneratu 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Inplikaturako ikastetxeak 	<p>0⁶</p>
<ul style="list-style-type: none"> ○ Gizarte esparru desberdinetan sentikortze jardun eraginkorrak sustatu 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Nekazaritzaren aldeko gizarte taldeak ○ Agerraldi publikoak 	<p>13 0⁶</p>

HELBURU OROKORREKIKO HARREMANA

- Nekazaritza berpiztu
- Herritartasun grina elikatu
- Landa eremuaren autonomia sustatu

LAN-ILDOAK

- Eskualdeko elikadura jasangarria ahaldundu
- Azoka eta gertuko merkaturaketa ereduen lanketa
- Ikastetxeetan baserri munduaren presentzia, ezagutu eta sustatu
- Gizarte sentikortze jardun eraginkorrak sustatu

⁶ Ekimen berriak izango direnez, hasierako datua 0 da.

HERRI IZAERA BIZI KALITATEAREKIN BAT EGIN

HELBURU ZEHATZAK	ADIERAZLEAK	GAUR EGUNGO BALIOA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Herri eta auzuneetako oinarrizko zerbitzu eta azpiegituren eguneratzea 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Zerbitzu eskaintza ○ Azpiegitura sortu eta/edo eraberrituak 	<p>0⁷ 0⁷</p>
<ul style="list-style-type: none"> ○ Herri mugimenduei, auzolandegi eta auzotar kolektiboen arteko lankidetzeta, babesa eskaini 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Ekimen kopurua ○ Kolektiboak 	<p>0⁷ 0⁷</p>
<ul style="list-style-type: none"> ○ Herri paisaien izaera eta ingurumen kalitatea bermatu 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Proiektuak 	<p>0⁷</p>

HELBURU OROKORREKIKO HARREMANA

- Herritartasun grina elikatu
- Landa eremuaren autonomia sustatu
- Ekonomia eredugarria, anitza, soziala, sustatu

LAN-ILDOAK

- Auzo eta herri txikietako zerbitzu azpiegitura, jolas eta topaguneak sustatu
- Landa bizitzarako zerbitzu egokituen eskaintza komunatua
- Herri paisaien izaera bermatu
- Gizatalde anitzen elkarganatzea, landa etorkizuna eta gizarte eredu lantzera bideratuta
- Landa eremuetako aberastasuna sustatu, natur ondarea, artea, kultura ...

⁷ Ekimen berriak izango direnez, hasierako datua 0 da.

JARDUERA EKONOMIKO EREDUGARRIEN LANKETA

HELBURU ZEHATZAK	ADIERAZLEAK	GAUR EGUNGO BALIOA
○ Ekonomi sektore anitzen elkarlana sustatu	○ Elkarlan proiektuak	0 ⁸
○ Enpresa ezagutzatik eratorritako gogoetak aplikatu landa eta nekazari kolektiboetara	○ Gogoeta kopurua	0 ⁸
○ Interes sozialeko enpresen garapena sustatu	○ Enpresa kopuruak	0 ⁸

HELBURU OROKORREKIKO HARREMANA

- Nekazaritza berpiztu
- Herritartasun grina elikatu
- Landa eremuaren autonomia sustatu
- Ekonomia eredugarria, anitza, soziala, sustatu

LAN-ILDOAK

- Nekazaritza toki administrazio eta beste esparru ekonomikoekin lankidetzan jardun
- Eskualdeko eragileen arteko harreman eta lankidetzak estuagoa sustatu
- Efizientzia energetikoa, bertako baliabideetan oinarritua izatea bilatu
- Gizarte intereseko kudeaketa sustatu partaidetza publiko pribatuen eraketatik

